



ILEROKO ALDIZKARI EDERGAIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

;-:	VII Urtea	1925'ko	Urřia	82 Zenbakia	;-:
-----	-----------	---------	-------	-------------	-----

ASIS'TAR PRANTZISKO DONEA GORESTEN

Il zaneke zazpigarren eun-urte-betetzea.

Urřia—4-1226=1926-4-Urřia.

«Suscitat de pulvere egenum, et de stercore
elevat pauperem». (I-Reg.-II-8)

«Eřautsetik ateratzen du nohařoina, (pobrea)
ongarřitik eraikitzen landera».



LUR maloa mendiz bera iraulka bota ezazute.
Goitik bera amilka dijoalarik, bere gain elurřa bil-
durik dijoa, bere burua geroago ta aundiagoturik.

Sakon-barenera danerako, bere bidean arki-
tzen dituan zugaitz eta bordak ondatu ta zapatuak
dizkitzute; ain da aunditu, ta bere abiaduran in-
dardu.

Beren jakinduriaz eta bizitzaren doneaz argi-
tu izan diranai, beste aınbeste gertatzen zaye.

Beren izen ona ta omena, urteak joan ainbat
aundiagotzen da, edatzen, argituagotzen, maitagarřiago, eta arřiga-
rřiagotzen.

Emendik urte bete batera, 1926'garren Urřiaren 4'ean, Asis'tar
Prantzisko Donea il zanez geroko 700 urte beteak ditugu.

řOrduan bařio zein andietsiago, arřigari ta goretsiago ez degun
gaur gure Aita Donea!

Bere bizitzan lander, soñeko zar, uratuaz jantzirik, ezeren jabe ez izanik, atez ate ogi eske, kaleko umen iseka ta iribañetan ibili zan gizagaxo aren izena, ludi (mundu) guztian degu edatua ta zabaldua.

Alderdi guztietan, aren aintzan eta oroitzapenetan, datoñen urtean egin bear diran jayak gertutzeko batzordeak (juntak) sortu dira; eta batzorde oyen maipuruko, erietako agintari nagusienak ditugu.

Bereziki, Prantzisko Donearen jayoterian, Italia'n, iñor gores-tearñen egin izan diran jayik aundienak ari dira gertutzen (prestatzen.)

Done guztien aldean guztiz italiaña, eta italiañ guztietatik donee-na, Asis'tar Prantzisko dala jakin bai-dakite.

Prantzisko'ren semeak egin dioten eskaria ontzat artuta, Italia'ko Agintari Buru dan Mussolini jaunak erabaki du, 1926'garñen urteko Uriaren 4'garñen egunean, Italia'ko eritar guztiak jai egin deza-tela.

Gañera bere aldetik, al izango duan laguntza Prantziskotañai eskañi die, zazpigarñen eun-urte-betetze ontako jayak, Italia guztian, aliz aipagañienak eta ederñenak izan ditezen.

Italia'ko erietan, Foligno'n, Cannara'n, Spoleto'n, Asis'en eta beste askotan, datoñen urteko jayak gertutzeko batzordeak egin dituzte.

España'n ere jañi da ortarako Batzordea ta Eñegek berak ontzat artu du batzorde oñen buru izatea. Gañera Galicia'ko Prantziskota-ñen Probintzialak dei bat egin du, Santiago'n Prantzisko Doneari oroikari (monumento) bat goratu bear zaiola ta ortarako laguntza eskatuz.

Aita Sainduak Inglatera'ko Prantziskotañen iru multzuetako Bu-ruak Eñoma'n bildu zitzaizkiolarik, bere gogoia erakutsi zien, esanaz:

Maitasunez eta anaitasunez alkarëkin bat egiñik, Asistañaren seme guztiak, beren Aita eta Irakasle bakañaren jayak, datoñeu urtean egingo dituztela. Egiazki ta sendoki ori uste duala.

Gure Jainkoak, apalak goressten dituan Jainko zuzenak, zeruan ez-ezik, gizatar-tean ere, aundi guztiak baño aundiago, goiko guz-tiak baño gorago egingo du gure Aita.

Ludian, (munduan) erialde guztietatik, jainkozko eguzki argitsu ori sortu zan aldera beren begiak añiturik biurtzen dituzte; ezin bai-dute atzeman, jainko maitasunez ain litekëla sutu aragizko biotza, jainkotasunaz ain edertu ta begikotu ezur eta nañu ilunezko soña (gorputza).

Gloriare... ¡Poztu zaitea, Kristo'ren Gudari azkar ori! *Et respice de excelso Caelorum habitaculo.....* Zeru goiko bizitokitik guri ere begi euki ezaguzu. Zuretzako berezi zenduan eñi onen alde otoi, Jau-naren jauregiko mirabetzan, zure añaan befitan otsein datzakizun.



Zazpireun urte laster betetzen dira mundu onetik zerura joan
ziñan ezkerro, o Asis'tar Prantzizko Santua! Ordudanik zure seme-
ak ta zure jarraileak ugarituz ta geituz dijoaz, zeruko izarrak aña,
itxas-baztarreko are-bikorrak bezin ugari.

Gaur, zure aurrean belaunikaturik, gure begiak zure irudira lu-
zaturik ditugula, biotz-biotzez eskatzen dizugu, «Zeruko Argia» ta
beronen irakurle guztiak bedeinkatzeko, zure laguntzaz zorionez
bete ditezten.



4'n Agindua. Gurasoei dagokien lotsa

Gloria enim hominis ex honore patris sui. (Eccli. III-13)
Gizonaren ospea aitaren itzaletik dator-ba.



URASOAK dira Jaungoikoaren ufengo beren aufentzat. Jeronimo deunak ebreo'taŕen arteko jakintsuena deitzen zuan Filon'ek gurasoak deitzen ditu bigaŕen jaungoikoak. Ezin zaiote, alegia, jaungoiko izena eman, baŕio Jaungoikoak bere irudiko doai asko eman dizkie gurasoai. Jaungoikoagandik datorkie, Pablo deunak dionaz gurasotasuna. Ark eman die aufak azitzeko eskubidea. Ark eman die

nagusitasuna aŕen gain. Ark eman ere die, bere antzeko maitetasun eta onginaŕ bizia, beren aufaz begiratzeko ta al duten on guzia aiei egiteko. (Bresanvido).

Argatik gure ezaguerak, Jaungoikoari gure agurketa ta mendekotasuna eskeintzea eskatzen digun eran, baita ere gurasoai lotsa ta begirune ekartzea eskatzen digu.

Zer-nolako begirune-lotsa zor zaie gurasoai?

Gurasoai ekafi bear zaien begirune-lotsa, da gure aldean aundi ta goraŕaŕitatzat artu-azten dizkigun ezaguera. Jaungoikoaren eŕaŕio ta itzalaz inguratutakoak bezala, gurasoak agertzen dizkiguna. Jaungoiko aundia gure gurasoen baiten izkutatuko balitzaigu bezala. Alako begirune—eŕespeto—lotsatitasunarekin bear degu agertu aien aŕfean.

Begirune-lotsa ori izan bear du baŕukoa, ez azalekoa bakafik. Gurasoai zaien maitetasunetik etofi bear du, landaretik bere zitua—frutua—bezala.

Begirune-lotsa ori egiazkoa izateko gurasoai bear zaie begiratu edo

bear dira gurasoak artu Jaungoikoaren ordezkotzat, Aren iruditatzat, Jaungoiko beraren izenean gu zaindu, zuzendu, guri itzegin, erakutsi, eragin eta agintzen digutenai bezala. Ez dute eskubide gutxiago gure gurasoak Jaungoikoagandik.

Itzetan. Buru soilduaren afean zutitzeko ta zartuaren afean Jaungoikoaren bildufaz lotsa ekartzeko, agintzen ba-du Jaungoikoak, zenbatez begirune geiago zor zaio norberaren guraso ta bizitzaren emaleari? Gurasoakin jarduntzean—itzegitean—berai dagokien eran bear da itzegin; ez kideko lagunakin bezala. *Beroriketan* itzegiten diote euskaldun askok, eta ori litzeke erarik oberena; gutxienez *zuketan* bear zaie itzegin; iñoi ere *iketan*.

Itsusi da, gurasoari ojuka—oyuka—erantzutea; makufago esker onik gabe erantzutea; baño uts aundiagoa da, aiei itzik eman gabe luzaro moker egotea, edo itz itsusi ta mingafi gaiztoak esatea.

Ez aztu, zartzarorik auferatuenean ere, gurasoak guraso dirala. Zenbat gurasori laburtzen dizkie, beren seme-alaben esan gaiztoak, beren lufeko egunak!

Suezia'ko efege XII-gaŕen Karlos, gaztetan ardo-zale zan. Alako ordialdi batean amari itz gogor ta itsusiak esan zizkion. Biramonean adiskide batek aŕirazi zion amari emandako naigabea. Damuturik ordun bere okefaz, artu zuan edontzi—baso—bat ardo ta amagana joanik esan zion: Ama, nai-gabetu det Berori eta damutua nago... auxe izango da, ba, nere bizitzan edango detan azkenengo baso-ardoa. Esan bezala egin zuan.

Eginbidetan. Bizitzako eginbide guzietan zor zaie gurasoi begirune-lotsa. Aintzat iduki zazu zure aita, dio Jaungoikoak, eginbide ta itzetan. (Eccli. III-9). Aintzat artu ditzazu zure aita eta zure ama. (Exod. XX-12).

Agindu ori betetzen ez dutenentzat madarikazioa ematen du. «Bere aita ta ama aintzat artzen ez dituana madarikatua izan bedi» dio (Deut. XXVII-16). «Bere aitari pafa egiten dion begia... efekako beleak aterako aldute ta sapelatsak jango al dute». (Prov. XXX-17).

Eginkizun au betetzen da gurasoen gogora biziz; aien esanetara jafiz; berak nai dutena ontzat artzen dala adiraziz.

Ama-Birjiña ta Jose aita-ordekoaren esanak egiñez bizitu zan Jesus, Jose'ren seme balitz bezala agertzen zan ogei ta amar urtetan oraindik eta aren lantegian lan egiñez irabazten zuan aientzat bear zan eguneroko ogia.

España'ko efege Alfonso'ri bere aita II-gaŕen Fernando'k, bera bizi zala eman zion efegetza. Baño afeak etzion argatik lotsa gutxiago ekaŕi aitari. Gauetz jeikitzen zan, aita lo ondo egiten zuan ikusteko. Egunez etzan etxetik ateratzen aitari bedeinkazioa eskatu gabe; etxeratzean bereala agertzen zitzaion agur—diosala—egitera.

Arabia'tik zetozen moruak garaitu zituala Alfonso'k bere aita ikastean, au bidera atera zitzaion, zorionak emateko. Semeak ordeba bidera, zetorkion aita zaldi gurdian ikustean, bereala zaldi gañetik jauzi—salto—egin zuan lufera, aitari diosala egiteko, eta gero bidea oñez egin zuan, aitarekin itz-eginez.

Begirune-lotsa onen kaltezko utsegiñak

Begirune-lotsa galtzen zaie gurasoi naigabe gogofen bat emanez; gurasoak beartsu diranean, aiena dala agertzea lotsatuz; guraso ez balira be-

zala egíñez; jo nai balitzaie bezalako keñu gaiztoa egíñez eta ez gutxiago jotzen ba-dira, naiz ez gogor.

Jaungoikoaren itz gogoangari batzuek

Ez aztu Eklesiastikoaren liburuko Jaungoikoaren itz auek: Aufak, adi zazute aitaren esana, eta ofela egin, zeruratu zaitezten. Jaungoikoak nai du, ba, aufak aita aintzat artzea ta amaren esanari aufak itzala ekartzea agindu du. Diru biltzen dabilena bezala da, bere amari begirune-lotsa ekartzen dio-na. Bere aitari lotsa dakarkionak bere aufetan gozabidea izango du, ta bere otoitz-aldian entzuna izango da. Luze biziko da bere aitaren goratzale dana, ta aitaren esana egiten duanak gozatuko du ama. Jaunaren bildura duanak lotsa ekartzen die gurasoi ta nagusiei bezala lagunduko die sortu zutenai. Zure gurasoa aintzat iduki zazu eginbide, izketa eta eramanbear guzietan; aren bedeinkazioa jetxi dedin zure gañera, eta azkenearno iraun dezan. Aitaren bedeinkazioak sendortzen ditu aufen etxeak; amaren madarikazioak befiz iraultzen ditu aien oñafiak. (Eccli. III-2-II

Intza'r Damaso An.

XX

ZERGATIK...!

Bere ezpainenetan jañi zun Jaunak
mañubi mardul mardulenaren

goria,

algara alaia ta iribar gozo
beti zerion iturri bizi

bizia.

Bere bi begi urdiñ aietan
Andaluziko ortze urdiñaren
urdiña...

ta Murillo'ren aingerutxoan
antzera beriz, bere arpegi
sorgiña...

Zergatik, bere biotz-baruan
inpernu beltzak jañi ote-du
ain beazun beltz-zikiña...!

JAUTAÁKOL



“AGUR MARIA”



RA Zeruko Amak geiena maitatzen duan otoitza. Da gafierra maiz esaten duanarentzat atsegingaŕi berezia; deabruaren ikara, aingeruen alaitasuna, animen sendagaya, sainduentzat eresi biguŕia eta Mariaren jasopenik egokiena.

Andre Mariak berak esan zion bein Matilde Doatsuari otoitz onekin nai ta nai ez, bekatariengana itzultzen dugula; eta gero zion: «Ayek Jaungoikoaren doaya galdu ezpalute, ni enitzake doayaz betea izango; ezta ere Salbatzailearen Ama, ayek salbatu beaŕik izan ezpalute».

Monfortar Luis Mariak zion, Jaungoikoarena ote zan norbait ezagutzeko, gogoz Agur Maria edo Aŕosarioa esaten ote zuan begiratu oi zuala aŕetik.

Misiolari ospetsu bati jakinerazi zion Jaunak, bere itzaldietan ontzen ziran bekatariak, etzerala ontzen, an azpian zegoan lagunaren Agur Marien indaŕez baizik.

Matilde S.'ak, bein esanik bere Amari, nai zukela otoitzik ederenaz goratu, agertzen zayo Ama au, bulaŕean uŕezko letrak in idatzirik, eta esaten dio: Alabatxoa, nai alduzu asmatu luŕean, zeru-luŕaren Egileak biali zidan otoitza baŕio edeŕagorik?

Alonso Rodriguez Deuna, ordua jo aldioro, otoi au esan ta bakaŕik, igo zan birtuterik aundienetaraŕio.

Ligoriotar Alfonso S.'ak, ain jakintsua izan ta ere, otoi au zaukan beti mingaŕean, eta esan oi zuan Jaunaren adiskideen itzik eztienna dala.

Olier Jauna, gizon ospetsuak zion, ezin zuala deus ere ikasi Agur Maria bat aŕetik esan gabe.

Ain edeŕa izanik bada otoitz au, eta ain eŕaxa eta atsegingaŕia, ŕnola eztugu geixago maitatzen denok, naiz eŕugeak, naiz bekatariak?

¡Agur, bada, Maria! otoi egizu gu bekatarien alde orain ta eriotzeko orduan. Amen.

Aldaŕtar Ig. M. A.





ORA ZAGUN



Donostia'r J. A. A'k. bildua ta ereskidetua.

Andante

Go-ra za - gun mis - te-ri - o aun-di -



a, Jainko Jau-na Hos - ti-an es - fa - li -



a. Zu - ek ain-ge-ru - ek, ze - ru - ko gen-de



a, a - do-ra za-zu - e gu - re E-fe-ge -



a, gu - re E - fe - ge - a.

geld.

oñezkoa

GORA ZAGUN

- I. Gora zagun misterio aundia,
Jainko Jauna ostian estalia;
Zuek aingeruak, zeruko jendea,
Adora zazue zuen Efegea, zuen Efegea.
- II. Jainko gizon, gure Salbatzailea,
Mundu, zeru, guzien Egilea;
Jetxi zerutikan guri laguntzera
Atoz maitekiro gu bedeinkatzera, gu bedeinkatzera.
- III. Maitetasun, ospe azkengabea
Irutasun santuak dituela;
Oore iruei batasun berean,
Orain eta beti mendeen mendetan.

EROSARIO DEUNA



MAIRU gafen eunkiko gizartea ondapenetik atera zuten gauzak, XIII gafen Leonek bere idaztien batean dionez, Agurtza Deuna ta Prantzisko Deunaren lokafia dira.

Agurtza D'ren jatoria

Orain zazpi eunki direla gizon ospetsu Domingo zeritzana negartegiko lur ontara zan. Bere goguak, doai mota guziz ornitua ta Jangoikoaganako maitasunean irazekirik, ezin ikusi zuen gizartearen ondamena. Alan beahez, Efoman zegoelarik, III gafen Inozenziok, Pranziko Tolosara areriyo galdu ayek Jaunagana ekartzeko lekaide edo fraile batzuk biali zituanian, Domingo Deuna ere, gogoen maitasunaz irazekirik oyen artean jua zan. Ara elduz geroz, lanean asi zan etsaiari argi erakutziar oker zeudela ta egizko

Elizara biurtzeko; bañan etzioten jaramonik egin. Egunen batean otoitz berotsuaz Andre Mariari areriyoen alde eskatzen zegoelarik, agertu zitzaion Ama Virgíña agurtza Deuna (efosorioa) eskuetan zeukala esanaz: «¡Domingo! Trinidad Santuak etsai galdu oyek zeruko bidera ekartzeko, ta gizartea gaizkatutzeko gertu duen sendagaya, Agurtza Deuna da!» Zabaldu egizu bada nere agurtza (efosarioa). Ara emen Agurtza Deunaren Jangoizkoz jatofia.

Bere izatea

Tolon Abadiak argi ta garbi bere izatea azaltzen digu diolarik: «Agurtza Deuna 15 aita gureaz, ta 150 agur Mariaz eraturik, eta Mariaren ta Jesusen bizitzako pozesko, nekesko ta zorionezko ziñeskayez, korapilutarik dagon gogozko koroi bat da. Bi otoitz motaz antolaturik dago; aozko ta gogozko otoitzaz. Aita gurearen agozko otoitzaz, eta Jesusen ta Mariaren bizitzako ziñeskaien gogozko otoitzaz. Ofegatik Agurtza Deuna ezin da bikañago izan.

Eta egiaz Aita gurearen otoitza, otoitz guztien artean goyena ta bikañena da, Jesukristoren ezañetatik atera baita. Jaunaganakiko gure bete-bear guziak ta gure beartasun nagusien eskapena beregan dauzkagu. *Agur Maria*'ren otoitza befiz, Monfortko Luis Maria zorundunak digunez Testamentu befiko aztefena da; bertan Jaungoikoaren Gizakundea, ta Andre Mariaren Jaungoizkozko amatasuna agertzen dira. Baño debozio au beste debozio guzietatik bereizten duan gauza, Mariaren ta Jesusen bitzitzako gertaerak gogoraztea da. Efosario Deuna ziñeskai oyen gogoraldia gabe, arima gabeko gorputzaren antzera izango litzake. Egia esateko aozko otoitza ona da, baño ezta onena; aozko otoitzaren gañetik gogozko otoitza dago. Ezafi zaiozue aozko otoitz ofi Mariaren ta Jesusen bizitzako ziñeskayen gogorapena, eta ara or zergatik den Agurtza Deuna ain bikaña. Eta egiaz jizan diteke debozioen bat Agurtza Deuna baño ziñeskai gorenagoak dituenik? XIII gafen Leonek esaten digunez, kristautasunaren sustraizko siñistekoak efosario Deunean arkitzen dira. Pozezko ziñeskayetan: Jangoikoaren Gizakundea, eta Mariaren ta Jesusen izkutuko bizitza; nekeskoetan beren nekaldi lafi ta latza; eta zorionezkoetan Jesukristoren berpiztutzea ta Maria zeru-lufen jabetzat ipintzea gogorazten zaigu. Beraz ain bikaña ta goren baldin bada Agurza Deunaren debozioa edo otoitza, arduraz aitez, ene irakurle maitea, otoitz ori al dezun maizena egiten eta ala beartuko dezu Andre Mariaren biotza bear dezun guzia zuri ematera.

Leitzar Markos A.

Gure irakurle maiteai eskatzen diegu «Zeruko Argia» beti joaten ezipaiaie, edo zuzenbidean utsen bat arkitzen badute lañen! len baño len gaztigatzeko, bereala bialdu edo utsa

:— :— :— zuzendu dezagun. :— :— :—



ETXEA

Bordaberiko etxekoandrea

*Nere aurtzai izandako Graziarena'tar
Bizentari eskeña.*



IDA gofi!

Oo, oo!...

Ori bei biuria! zion Joxepak mendira zeramaz-
kin beitako bat, ondotik igaro (pasatu) ziran Pe-
trikoneko beiak jo naiez asi zala ikustean.

Baño beizaiaren deia entzutean, gofi adarzaba-
lak aufera jañaitu edo segitu zuan.

Aldapatxo piku batetik igo-ondoan, gofi, txu-
ri, afoxa ta beltza izenak zituzten beiaekin iritxi

zan Meaka'ko zabalera, gozoki onako au abestuaz (kantatuaz):

Atoz, pekataria,
Atoz, Elizara
Jaungoikuaren itza
Gogoz aditzera.

Zabalean, bi borda: bat, ate ta guzti, ardiak gauetan bere asnazaz be-
rotzen dutena; bestea otza ta aterik gabea; onen alde batean bi gerezi-ondo
eder; aien azpian mutil txiki batzuk gerezik jaten ta gerezi-ondoa afi ta ma-
kilka ondatzen.

Beien txintxafi-otsa aditu orduko mutilak laistefari ematen diote egiña-
lean deabruren bat ikusi balute bezela: an bertan zegoan gari-soroan sartu,
au inguratzen zuan paret-ondoan etzan ta onek, karerik gabe egin-da ze-
goalako, alde-alde zeukan txulo batetik aldizka begiratzen zuten Praxku,
Peño ta Bartolok, Jexepa zala ikusi zuten.

Au aufera juan zanean, gure mutilak bere gorde-lekutik atera (irten)
ziran bai; baño Praxkuk txamafa ta alkandora ukalondotik autsi zituan ta

onek kirik egiten zion txulotik. ¿Ta gero amak zer egingo ote zion? ¡Ura bildura!

*
* *

Bordabefi'ra iritxi da Joxepa. Aizpari dio:

—Aratsalde on, Patrixi.

—¡Ori aur edefa! Atoz, maitia, atoz izebagana... Paa...! ¿Badakin zenbat balio din aur onek?

—Ori galdera!

—Arzan aufa ta auxe irakufi zan, ni, beiak goraxeago utzi-ta, itzuli orduko.

Patrixi'k aizpak emandako liburua zabaltzen du; baño etzuan topatu aurak zenbat balio duan, ezpada onako itz auek:

«*Ama zenbaitek beren umeen maitekeriz burua galdu egiten dute; ofegatik umeak txurikatzen aritzen dira*».

«Oyek bere **umetxo**en **aufean** ta askotan kanpotafai esango diete:

«*Begira, Martxela, gure Joxe izugari argia da gero*».

«*Nik eztet oraindik ain aur argirik ikusi*».

«*Gotzaitako (Obispotako) ere balio du*».

«Aufaren burua aizez ta kez betetzen da, afotu egiten da ta gero iñork ere ezin *burutu edo sufritu izango du*».

*
* *

Patrixi'k au irakufi-ta zion bere aingerutxo bat maitetasunez estutuaz: Nik etzaitut losentxatuko nere maitia. Nik ondo aziko zaitut.

Ta gero biotz utsez esan zuan: O zein polita dan nere aingerutxoa, zein otzana, mantxua. Nik etzaitut losentxatuko zure aufean; baño bai zuk entzun ta ikusi gabe...


Ontan gure txikiak begiak zabal-zabalduta amari begira-begira jartzen zaio, muin emateko eskatuko balio bezela ta amak pozik ematen dio.

Joxepa, bidean iluntzeko bildufez etxera zuzen juan zan ta amarekin *Angelus* esan ere bai.

Praxku etxean ikaraz sartu zan, amak ukalondo autsia ikusteko bildufez.

Patrixi bere senafarekin sukaldean apaltzen ari zan pake gozoan, Pinto zakufa jatekoari begira-begira zegoan bitartean.

Osinburo O. M. Cap.



Paduako Antonio Deunaz

Gatzik gabeko labekada.



ONREALKO (*monja*) Misiolari Txurien etxe batean gertatu zan.

Egun batean aizpa arduraduna, Ama ori, ogirik ez daukagu, maian ez da apufik ere gelditu. Aragi pixka bat eta afautza batzuekin batere ogirik gabe amaf aizpa eta befogei neskatoi nola jaten emango diegu?—esanaz Ama Nagusiari joan zitzaion.

—Itxaron, aizpa, itxaron, Jaungoiko-Ardurak ogia bialduko digu—galtzerdi batzuek arabakitzen ari zan *monja* zaf batek esan zion.

—Jainko-ardurak! Bai!.... baliteke.... baño estualdi guztietatik ateratzeko beti gertu ez dago—z'ion *monja* gazte arduradunak.

—Aizpa ori, beragan uste izan dutenak Jainko Ardurak beñere utsegin al die?—Ama Nagusiak esan zion.

—Ezetz uste det.... baño....

—Baño zer?.

—Baño gaur ez da berdin. Ogia nork ekafiko digu?

—Antonio Deunak!—*monja* zafak esan zuan.

—Bai, gaur ogia jan al izateko Antonio Deunagan uste badegu, gosea il gabe lotara joan beaf izatea baditeke. Antonio'k entzuten die nai diena!

—Gogo ona izan ezazu, eta guztia ondo joango zaigu—esan zion Ama Nagusiak.

—Eta zer egin beaf degu? Befogeti neskato Agur Mariz janaritu ote ditzakegu?.

—Lapointe aizpak diona entzun ezazu, Antonio Deunak beñere ez gaitula utziko.

—*Mirari*'ren bat eskatuko al diogu?.

—Bai; eta egitean Meza bat agindu zaiogun eta eguerdia baño len ogia izango degu—Aizpa zafak esan zuan.

—Eguerdia baño lenagorako?, ori askotxo da.

—Nik Meza agintzen diot—Ama Nagusiak esan zuan. Atera deitu dutel, ogia ez ote da?.

—Lapointe aizpak—Baliteke!, eta zergatik ez?—esan zuan.

—Aizpa gazteak—Ezertxo ere ez det sinisten—erantzun zion. Ala ere erdi-opadun, erdi siniskaitz ateruntz Ama Nagusiari jafaitu zitzaion eta Lapointe aizpa ere atzetik joan zitzaion.

—Renault aizpa arduradunak—Ogitegiko bi gurdi ate afean geldituta!—oju egin zuan. Ofen aguro entzun ote zaigu? Ezin ditekela!

Gizon batek aguf eginaz—Ama agufgafio, Latour ogi-egilea ezagutzen al dezute?—Uriko ogi-egilerik aundiena? Ni bere mofioa naiz—esan zion.

Ama Nagusiak ezagutzen zuala, eta kristau ona, eskuzabala eta *monja* Txuri Misiolarien lanen andieslea zana bazekiala adierazi zuan.

—Begira, gaur goizean oafkabez labekada bat ogi gatzik gabe efe degu; eta ofela, iñork naiko ez duta, ezin saldu diteke.

—Eta guri al dakarzkiguzu?

—Bai, Ama ori; zuek jakituko dezutela ta alpefik galtzea baño zuei ekaftzea obe dala esan du nagusiak. Barkatuko dezute.

Ai, ez; ze barkaturik ez degu; zure nagusiaren bidaliak estualdi aunditik ateratzen gaitu. Gutzaz oroituerazi diona Antonio Deuna izan da. Befogeineskato eta amaf aizpai emateko ogi apuf bat ere ez genduan.

Bitartean Latou jaun ogi egilea eldu zan; Ama Nagusiak ze lafiaditik atera zituan esan zion.

—Latour Jaunak Lapointe aizpa zafari—Antonio Deunaren gain dezun eskubidea ezagutzen det!—esan zion ¡Antonio Deuna zuei entzute afen ni ondatzeko trebe izan-

go data, ogia beaf dezutenean, afen, neri esan zadazute; bada zuek ogia eskatzen diozuten bakoitzean neri labekada bat galduerazten badit, laster bide-zoñoa bizkafean detala atez-ate asi beafean arkituko naiz. Ofegatik, afen, Antonio Deunaren orde z neri eskatu zadazute eta guztiok irabaziko degu; zuek ogi gatzua izango dezutelako eta nik labekada galduko ez detalako.

Lapointe aizpak pafe egin zuan.—«Antonio Deunak kalterik egingo dizun bildufik ez izan; bada alatzgile baño len, beragan uste dutenen Aita da»—esan zion.

Renault aizpa gazteak—Ni onbiuritu naiz—esan zuan; bada oraingoan beñepein Antonio Deunak gure eskariak entzun ditu-ta—(Ap. F.)»

Paduako Antonio Deunagan beren ustea dutenak onura gabe ez dira geldituko.



Beartsuen ogi-emalea



Gaixoak elizara



URTENGO udan asi dira Holanda'n gaixoentzako eliz-
kizunak egiten. Gauza befia da, baño gaixoai beren gait-
zak ongi eramaten asko lagunduko diena.

Aurten iru elizetan bakafik egin dira, azkenengoak Nimega'n. Ara nola. Da-
gonila edo abuztuaren 24'an, afatsaldean eliz-buruak jafi-erazi zituen elizan oyak
ta alki edo siloiak 175 gaixoentzat. Ufengo goizean 16 tafanta (auto) banatu zi-
ran Nimega'ko kale bafena gaixoak beren etxetan artu ta elizara eramateko. Be-
deratzitan Jauna agirian ipini ondorean, asi zan meza nagusia ta bertan gaixo
guziak Jauna artu zuten.

Meza bukatu bezin laster, Jauna sakristira eraman zuten ta 15 emakume gai-
xo-zai asi ziran gosario ematen. Atsaldean **Magnificat** abestu zanean, proze-
zioa egiñaz Jauna elizara ekafi ta gaixo bakoitzari bedeinkazioa eman zitzaion.
Au bera iru egúnetan egin zan.

Ez diteke esan nolako atsegiña artu zuten gaixoak iru egun ayetan; bazan
gaixoen artean 14 urte oyetan eliza ikusi etzuen.

Ez die atea iriki nai

Jesus'en lagundikoak (jesuitak) Noruega'n sartzea debekatua daukate. Lege
au austeko garaya etofi dan edo ikusteko, diputaduai beren iritzia eskatu zaie ta
ara zer esan duten: 99 diputaduen iritziaz etzaye sartzen utzi beaf. beste 33'k esan
dutenez utzi beaf litzayeke ta lege ori ufatu; 18 gelditu dira beren iritzia eman
gabe.

Etzaizkie ba oraindik Jesus'en lagundikoai Noruega'ko atea iriki nai.

Ezetz esan dutenak sei gotzai edo obispo luterotafen esana egin dute, jesui-
tak beren etsairik aundienak dirala; komunistak ere zerbait esan beaf zuten ta
ara zergatik esan duten ezetz, katolikoak ez omen ditugu komunistak ondo ikus-
ten ta gañera ez omen diegu, besteai bezela, gure Sakramentuak eman nai. Bes-
te batek jesuitak ta beren ikastetxeak goratu ditu, baño efiak nai duena egiteko
omen daude ta efiak ez omen ditu oraindikan jesuitak ondo ikusten.

Jo ta lapurtu, baño ez il

Ezagunak dira Txina'tafak ilabete oyetan dabilzkiten zalaparta ta bufukak

ta atzefitafai edo kanpotafai erakusten dien gofoto bizia. Barkatuko ote die mi-xiolari katolikoai?

Kei-Feng'dik idatzi du batek ta dionez toki batzuetan asi omen dira katoli-koai ere kalte egiten. Igande goiz batean katolikoak mezan zeudenean, 300 txi-nataf sartu zitzaizkien elizan, al zuten guzia afapatu ta katolikoak jo zituzten; au guzia efiko buruaren baimenaz; bakaf bakafik inor iltzea eragotzi zien. Au ikusi dutenean, mixiolari protestanteak alde egin dute.

Jaungoikoaren amar aginduak ta zinea

Dublin'en pelikulak ontzat emateko jafita daudenak zofotzak dira noski; ba-liteke beste inon alakorik ez afkitzea. Ikusgafia dana ontzat emango dute, baño oiturentzako kaltegafia ez dute inolaz Irlanda'n sartzen utziko.

Oraindañoko alegiñak alpefikakoak ikusi dituztenean zine-etxeak, guziak ondo batuta lan bizian asi dira befiz, nolanaiko pelikulak ea sartzen ote dituz-ten. Lenbizi itzaz asi dira, ea elkañ aditzen ziran, baño alpefik; gero izpeñgiak artu dituzte, indar geyago egiteko, alpefik ala ere; gero zematu zuten, teatro guziak itxiko zituztela esanaz, ajola gutxi besteai ordea.

Zer egin? Azkenean ekañ dute Amerika'tik pelikulak egiten langiñe (actor) bikaña ta guzien buru ipiñi dute, nai dutena iritxi afen. Obe zuen etofi izan ez-pazan. Noizbait aspeftu da ezer ez iritxi az ta onela dio pelikulak ikusten ditua-nari: «Amerika'n 120 miñoi gera ta onak zaizkigu onera dafozen pelikulak, zuek iru edo lau miñoi besterik etzerate ta ez dituzte ontzat eman nai. Zein da onen zofotza egiten zaitun lege ori?»

«Bai, erantzun zion pelikula-ikuslariak, bada lege bat oso zafa; liburu asko-tan dabil lege ori, baño ezagutzen ezpadezu, pozik erakutsiko dizut. Sinai goyan eman zan lege ori lenen aldiz».

Onela bialdu zuen Amerikafa. Zorionekoak Irlandafak, zorionekoak onela-ko agintariak dituzten efiak.

Lo Pa Hong

Nor dan au? Txinataf gizon aberatsa, baño oso aberatsa, gizon langiñe ba-ño langiñe bikaña ta batez ere katoliko zintzo ta egiazkoa.

Amerika'ko gotzai batek dio *Lo Pa Hong* katolikoan artean, apaizak alde batera utzi ta, aundiena dala. Ezagutzen dan ongñe aundienetakoa da ta Txina guzian oso ezagutua da. Iru gaixo-etxe egin ditu Shanghai'en ta berak emanda-koarekin bizi dira 2.500 edo 3.000 beaftsu.

Beste gotzai batek dio: «Amerika'n ez da ofelako gizonik. Ba dira gure ar-tean miñoi bat, bi miñoi gaixo-etxeak egiteko ematen dituzten aberatsak, baño ez da inor *Lo Pa Hong* bezela gaixoakin ibiltzen. Joan dan urtean zazpi miña bata-yatu ditu berak, geyenak iltzeko zorian. Igandero bera aitzen da txinataf umeai kristau-ikasbidea (dotriña) erakusten ta berari eskefak igandero 300 gizon ka-toliko zabaltzen dira elizetan ori bera egitera».

Aita Santuak zenbat maite duan jakiteko, naikoa da esatea *Lo Pa Hong* Gre-gorio Aundiaren ta Silvestre Deunen Ordenetako Zalduna dala.

Jose Deunaren gaixo-etxea da berak geyena maite duena, orain amar urte ta geyago egiña. Asieran 500 edo 600 gaixo izaten zituen, orain baditu 1.800; iñero 10.000 dollar beaf izaten dira ta iya guzia berak ordaintzen du.

Lenengo urtetan 1.000 batayo izaten ziran gutxi gora bera gaixoen artean; orain 1.700.

Egunero Jauna artzen du gaixotegian ta gero lanerakoan beti galdetzen omen du zenbat gaixo sartu diran beñero, zenbat il ta zenbat batayatu.

Eskefak ematera joaten zaionari beti erantzungo omen dio: Jaunari, Jaunari eskefak